

# OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure enpresaren funtsezko jarduera, ekoizpena da, baina gure produktuaren diseinua ezinbestekoa da hura ekoizteko. Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea; denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko. Gainera, on line saltzeaz gain beste denda batzuetan salgai izateko aukera egongo da eta bertara gure produktua eramatea oso garrantzitsua da.

Ogi txigor prestatzaile guztiak berdinak izango dira baina bezero bakoitzak bere programazioa egokitzeko aukera izango du, hau da, ogi mota eta txigortu nahi den osagaia aukeratzeko aukera.

On line erositako bezeroei gure produktua etxea eramango diegu, beraiek jarritako helbidera hain zuzen ere. (Dendan erosten duenak zuzenean etxera eramateko aukera izango du.)

Arazo bat balego e-mailez edo telefonoz gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute eta guk arazoari aurre egiten laguntzen saiatuko gara. Arazoa produkzioarena balitz guk konponduko genuke, aldiz disenuaren arazoa balitz, beste ogi txigor prestatzailea berri bategatik aldatuko genuke.

Web-orrialdean eta dendako zuzendariari produktuaren promozio eta aukera ezberdinak eguneratzen joango ginen.

Gure enpresak jorratuko dituen atalak produktu honen diseinua, produkzioa, publizitatea, garraioa, kostua, dirua eta bezeroekiko harremanak izango dira.

Guretzat, jarduerarik nagusia eta garrantzitsua, noski, ogi txigor prestatzailearen produkzioa da. Horrek izango duelako indarrik handiena eta gure lana arrakastara eramango duena. Baita ere, gure webguneak garrantzi handia dauka bertan erosteko aukera izango dutelako eta bertatik etxeetara eramango da.